


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo ziren 2008ko martxoan

Azken hamabi hilabeteetan (2008ko martxoa, 2007ko martxoarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuek %6ko gehikuntza izan zuten.

2008ko martxoan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,1 igo zen aurreko hilaren aldean, eta martxorako urte arteko tasa %6ra iritsi zen, EUSTATen datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2008



(*) Gehikuntza martxoko urte artekoa da

200ko martxoan, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,2 igo ziren.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten: aurreko hilaren aldean % 0,2 igo zen Eraikuntza eta %0,1 Obra Zibileko lehengaien kostuak. Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, ibilbide ezberdinak izan zituztela ikusiko dugu: Eraikuntzako lehengaien kostuak %5,7 hazi ziren, eta Obra zibilekoak, aldiz, %6,5.

Martxoan prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: Material elektronikoa (%1,8), Metalurgia (%1,1) eta Altzarigintza (%1,1). Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten Energia elektrikoa eta gasak (%-2,5), eta Ez-metalezko industriak (%-0,8).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: Energia elektrikoa eta gasa (%14,6), Ez-metalezko meak (%11,9), Ura (%10,9) eta Petrolioa fintzea (%10,2). Bestalde, urte batetik bestera (2007ko martxotik 2008ko martxora)

honako hauen lehengaien prezioak murriztu ego gutxiago igo dira: Material elektronikoa (%-2,2) eta Metalurgia (%0,2).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2008KO MARTXOA
GOIBURUAK	INDIZEA 2005= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	113,9	0,1	6,0	4,0	
ERAIKINAK	113,6	0,2	5,9	3,9	
OBRA ZIBILA	115,1	0,0	6,4	4,1	
LEHENGAIEN KOSTUA	113,2	0,2	5,9	3,3	
ERAIKINAK	112,9	0,2	5,7	3,4	
OBRA ZIBILA	114,6	0,1	6,5	3,3	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	116,6	0,0	6,3	6,3	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es